

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

43/2020 Mozioa, uztailaren 8koa, mahasti-asegurua kontratatzeari eta uztei eragiten dieten plaga eta gaixotasunei aurre egiteari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko uztailaren 8an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

43/2020 Mozioa, uztailaren 8koa, mahasti-asegurua kontratatzeari eta uztei eragiten dieten plaga eta gaixotasunei aurre egiteari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote mahasti-aseguruen kontratazioa sustatzeko, sentsibilizazio-ekimenak antolatuz, arriskuei eta estaldurei buruzko informazioa emanez, polizak hobetzeko proposamena eginez eta harpidetzeagatiko pizgarriak eskainiz.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote nekazaritza-praktiken inguruko transferentzia-, esperimentazio-, ikerketa-, aholkularitza- eta prestakuntza-jardurekin jarrai dezala, Neiker eta Hazi fundazioekin elkarlanean, mahastietako uztei eragiten dieten plaga eta gaixotasunei aurre egiteko, ingurumenaren jasangarritasuna oinarri.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 8a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA